BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

3675

EBAZPENA, 2015eko abuztuaren 3koa, Segurtasuneko sailburuordearena, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari honako hau kudeatzeko gomendioa egiteko akordioa argitaratzeko dena: Bide Prestakuntzako Irakaslearen Gaitasun Agiria lortzeko ikastarorako deialdiaren 5.2 oinarriaren arabera, bertaratuta jaso behar den prestakuntza-fasea irakastea (ikastarorako deialdia 2014ko urtarrilaren 27ko Ebazpenaren bidez egin zen, eta otsailaren 6ko EHAAn argitaratu zen, 25. zenbakian).

Urriaren 15eko 3256/1982 Errege Dekretuak xedatutakoaren babesean, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 194/2013 Dekretuaren 16.5.a) artikuluan Trafiko Zuzendaritza honi emandako eskumenekin bat, eta urriaren 17ko 1295/2003 Errege Dekretuaren bidez onartutako Motor Ibilgailuen Gidarien Eskola Partikularrei buruzko Erregelamenduak ematen dituen eskumenen arabera, Trafiko Zuzendaritzari dagokio, bere egitekoen artean, Bide Prestakuntzako Irakaslearen titulua lortu nahi dutenentzat ikastaroen deialdia egitea.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 15. artikuluaren arabera, Administrazioko organoen edo zuzenbide publikoko erakundeen eskumeneko jarduera materialak, teknikoak eta zerbitzuzkoak administrazio bereko edo beste bateko organoei edo erakundeei gomendiotan eman dakizkieke, eraginkortasunari begira komeni bada, edo jarduera horiek gauzatzeko baliabide tekniko egokirik ez badago. Gomendioak ez dakar, ordea, ez eskumenaren titulartasuna lagatzea ez eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzea.

Trafiko Zuzendaritzak ez dauka beharrezko baliabiderik Bide Prestakuntzako Irakaslearen Gaitasun Agiria lortzeko ikastaroetan bertaratuta jaso behar den prestakuntza-fasea irakasteko.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak esperientzia luzea eta egiaztatua dauka xede honekin egindako lanean: herritarren segurtasuna bermatzeko zerbitzu publikoak ematen jarduten edo parte hartzen duten pertsonek beharrezkoa den lanbide-heziketa lortzea.

Hori horrela, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari gomendiotan ematen diot Bide Prestakuntzako Irakaslearen Gaitasun Agiria lortzeko bertaratuta jaso behar den prestakuntza-fasea irakasteko eginkizuna.

Denek jakin dezaten, kudeatzeko gomendioa ebazpen honen eranskin gisa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea xedatzen dut.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abuztuaren 3a.

(Trafikoko zuzendariaren ordez. Lehenengo Xedapen Gehigarria Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 194/2013 Dekretuarena (1.b)).

Segurtasuneko sailburuordea,
JESÚS MARÍA ZUBIAGA NIEVA.

AKORDIOA, KUDEATZEKO GOMENDIOARENA, SEGURTASUN SAILEKO TRAFIKO ZUZENDARITZAREN ETA POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAREN ARTEKOA, HONAKO HAU EGITEKO DENA: BIDE-PRESTAKUNTZAKO IRAKASLEAREN GAITASUN-AGIRIA LORTZEKO IKASTARORAKO DEIALDIAREN 5.2 OINARRIAN AURREIKUSITAKOAREN ARABERA, BERTARATUTA JASO BEHAR DEN PRESTAKUNTZA-FASEA IRAKASTEA (IKASTARORAKO DEIALDIA 2014KO URTARRILAREN 27KO EBAZPENAREN BIDEZ EGIN ZEN).

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 31.

HAUEK BILDU DIRA:

Batetik, Josu Zubiaga Nieva jauna, Segurtasuneko sailburuordea.

Eta bestetik: Malentxo Arruabarrena Julián, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia

HAU ADIERAZTEN DUTE:

Trafiko Zuzendaritzak –eraginkortasuna helburu– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari eskatzen dio bere gain har dezala Bide Prestakuntzako Irakaslearen Gaitasun Agiria lortzeko ikastarorako deialdiaren 5.2 oinarriko irakaste-jardunaren kudeaketa materiala, hau da, bertaratuta jaso behar den prestakuntzaren faseko irakaste-jardunari dagokiona (ikastarorako deialdia 2014ko urtarrilaren 27ko Ebazpenaren bidez egin zen, eta otsailaren 6ko EHAAn argitaratu zen, 25. zenbakian), honako klausula hauekin bat:

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Gehieneko ikasle-kopurua.

Ikastaroetara bertaratuko diren ikasleak taldeka eta txandaka banatuko dira, behar izanez gero. Horrela, talde bakoitzeko gehieneko ikasle-kopurua ezin izango da 40tik gorakoa izan.

Bigarrena.– Bertaratzeko fasearen iraunaldia.

Bertaratzeko faseak 10 asteko iraunaldia izango du. Epe hori luzatu egingo da, baldin fase horretan herriko jairik, autonomia-erkidegokorik edo estatukorik egokitzen bada, jai horiek errekuperatu egin behar baitira.

Hirugarrena.– Eman beharreko gaiak.

Honako gai hauek irakatsiko dira bertaratzeko fasean:

- Helduen prestakuntza eta irakasteko trebetasunak.
- Oinarrizko bizi-euskarria.
- Araudia, bide-segurtasuna eta garraioa.
- Mekanika eta gidatze ekonomikoa.
- Giza faktorea bide-segurtasunean.
- Bide-segurtasuna: ibilgailua eta bidea.
- Gidatzen irakasteko praktikak.
- Errefortzua.
- Bertaratuz egin beharreko tutoretza.

Laugarrena.– Esleitutako eginkizunak.

Hirugarren klausulan adierazitako gaiei buruzko prestakuntza eman beharraz gainera, eginkizun hauek esleitzen dira:

• Irakasleen taldean irizpide tekniko eta pedagogikoak planifikatzea, koordinatzea eta bateratzea.

• Gai edo irakasgai bakoitzerako aurkezten den programazio didaktikoari egokitzapenak egitea, edukiak zehaztea, ebaluazio jarraitua egiteko sistemak eta dagozkien errekuperazioak ezartzea, eta gidatzen irakasteko beharrezkoak diren ezaguerak, trebetasunak eta jarrerak elkarren artean integratu direla erakusteko probak ezartzea.

• Etengabeko jarraipena egitea, ikasleen bertaratzea zorrotz zainduta.

• Trafiko Zuzendaritzari eskatzen duen informazio guztia ematea, prestakuntzari eta ikasleei dagokienez, eta, batik bat, haien aprobetxamendu- eta bertaratze-mailei dagokienez.

• Parte hartu duten ikasleen aprobetxamendu- eta bertaratze-mailen ebaluazioa.

• Txanda bakoitza bukatu ondorengo astean txosten bat idaztea, alderdi hauen berri emanez:

– Ikasleen bertaratze-hutsen zerrenda, huts horiek erabat justifikatuta eta dokumentatuta direla.

– Parte hartu duten ikasleen aprobetxamendu- eta bertaratze-mailen ebaluazioa.

– Bertaratze-fasean, gai bakoitzeko ebaluazio-proba gainditu ondoren, Gai kalifikazioa jaso duten ikasleen zerrenda, eta Ez Gai kalifikazioa jaso dutenena, zein irakasgai errekuperatu behar dituzten zehaztuta.

• Trafiko Zuzendaritzari, txanda bakoitza bukatu ondorengo astean, prozesuaren azken emaitzak helaraztea.

Bosgarrena.– Gastuak.

Bertaratuta jaso behar den irakaskuntza-fasera sartzen diren ikasleek zuzenean ordainduko dizkiote prestakuntzaren ondoriozko gastuak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari, Bide Prestakuntzako Irakaslearen Gaitasun Agiria lortzeko ikastarorako deialdia egin zuen Trafikoko zuzendariaren 2014ko urtarrilaren 27ko Ebazpenaren bederatzigarren oinarrian ezarritakoaren arabera (otsailaren 6ko EHAA, 27. zenbakia).

Seigarrena.– Indarraldia.

Kudeatzeko gomendioa indarrean egongo da tresna hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik, bigarren xedapenean aipatutako bertaratze-fasea amaitu arte.

Agiri honen edukiarekin ados daudenez, eta horrela jasota gera dadin, alderdi biek kudeatzeko gomendioa formalizatzeko tresna hau sinatzen dute, eta, denek jakin dezaten, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea xedatzen dute.

(Trafikoko zuzendariaren ordez. Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 194/2013 Dekretuaren 1.b) lehenengo xedapen gehigarria).

Segurtasuneko sailburuordea,
JESÚS MARÍA ZUBIAGA NIEVA.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia,
MALENTXO ARRUABARRENA JULIÁN.